

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren areto nagusian 1929'ko Lotazila'ren 20'an.

Aurako batzaraldian aipatzen diran jaunak berak datoz.

Otoitzez asi da.

I.—*Kirikiño*-sarirako 500 peseta ematea erabaki da, lendik erabakirik zegonez; bañan izparingietan ez da ezer esan bear.

II.—Iztegiko lanetan luzaroan jardun degu.

III.—Eguskitza jaunak-*garri* atzekia bide arturik, bererizko idazki bat irakuñi digu. Lan au *Euskera*'n argitaratuko da.

IV.—Aita Intza-k eriz-eriz bildu dituen itz eta esakunak irakuñi dizkigu eta pozik entzun dizkiogu.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldia.
